



#mareaurdina

MAREA URDINA ELKARTEA

Aniztasun funtzionala duten pertsonen
inklusioren aldeko taldea

2020 URTEKO MEMORIA



AURKIBIDEA

1. ELKARTEAREN HELBURUA	3
2. AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK	4
3. PROIEKTU URDINAK	48




1. ELKARTEAREN HELBURUA

Helburua bakarra da, aniztasun funtzionala duten pertsonen INKLUSIOA (bai, letra larrietan). Inklusioa ez bakarrik eskolan, baita kirola, kultura eta aisi aldian ere. Gure bailarako aniztasun funtzionala duten pertsonak herrian sortzen diren aktibitate eta dinamika ezberdinetan leku bat izan dezaten egingo dugu lan, horretarako herriko agente eragile ezberdinei (udal, kirol elkarte, musika eskola, edozein ekimen...) inklusioaren “betaurrekoak” jartzen saiatuko gara.

Iaz Marea Urdinera “zertan lagundu dezaket?” galdera eginez gerturatzen zirenei “zer dakizu egiten?” galderarekin erantzuten genion. Hemendik aurrera gugana gerturatzen den orori “eta zuk/ek zer egin dezakezu/e inklusioaren alde?” galdetuko diogu.

Herrian sortzen den edozein egitasmo, ekintza, kirol, kurtso, jardunaldik... inklusioaren ikuspegia landua izatea nahiko genuke eta gure indarrak hor ipiniko ditugu.

Bestalde, badakigu batzuetan aniztasun funtzionala duten pertsonen beharren arabera ezingo dugula edozein aktibitate edo ekintzetan parte hartu, kasu hauetan Marea Urdina Elkarteak egokitutako iharduerak antolatzen saiatuko da.



Azkenik eta ez garrantzi gutxiago duelako, sentsibilizazio eta kontzientziazio ekimenak bultzatuko ditugu gure bailaran. Iazko Marea Urdinetik zerbait ikasi bagenuen sentsibilizazioa



zela gizarte inklusibo bat eraikitzeko zimentu edo oinarria izan zen.



#mareaurdina

2. AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK

Marea Urdineko kideak 2020 urtean parte hartu duten jarduera INKLUSIBO, EGOKITUTAKO ekimen eta egin diren KONTZIENTZIAZIO ihardueren berri emango dugu hemen.

Zein helbururi egiten dion erreferentzia goiburuaren kolorearekin adieraziko dugu.

Jarduera arrunta

Egokitutako jarduera

Kontzientziazio jarduera

Informazio guzti hau ondorengo lekuetan aurkitu dezakezue:

Web orrian: <https://www.mareaurdina.org/>

Facebook: <https://www.facebook.com/mareaurdina2018>

Twitter: <https://twitter.com/mareaurdina>

Instagram: <https://www.instagram.com/mareaurdina/>

Blogger: <https://mareaurdina.blogspot.com/>

Youtube: <https://www.youtube.com/mareaurdina>



#mareaurdina

HUHEZI-ko ikasleekin bilera

Data: 2020-ko Urtarrila

Mondragon Unibertsitateko Humanitate Zientzien Fakultatek (HUHEZI) etorkizuneko irakasle izateko ikasten ari diren ikasleekin bildu gara aste honetan.

Marea Urdinako guraso eta senitartekoekin hitz egin nahi izan dute, gure umeekin ikastetxeetan izan ditugun beharrez jabetzeko eta etorkizunean beraiek lan munduan murgiltzen direnean aniztasun funtzionala izango duten ume horiei harreta egokiagoa emateko. Gora zuek! Zuek ere URDINAK zarete! Sentsibilizazioa eta ezagutza da bidea eta horretan jarraituko dugu, gizartearen esparru guztietan.



San Sebastianetan puzgarri INKLUSIBOAK

San Sebastianetan ere puzgarriak INKLUSIBOAK izango dira.

1. Alde batetik aniztasun funtzionala dutenek ez dute ilararik egin beharrik izango parkea irekita egongo den egun guztietan (Urtarrilak 18 (16:00-20:00) eta 19 (11:00:14:00)).

2. Aniztasun funtzionala dutenentzako baina konkretuki jendetza, zarata eta musikarekin arazoak izan ohi dituztenentzako ordutegi berezi bat jarri da:

- Urtarrilak 18 Larunbata 15:00-tik 16:00-ra

- Urtarrilak 19 Igandea 10:00-tik 11:00-ra eta 15:00-tik 16:00-ra





#mareaurdina

San Sebastianak ere guztiontzat nahi ditugulako, zorionak Azpeitiko Udalari! Zuek ere Marea Urdina zarete.

Data: 2020-ko Urtarrila

Aurten ere Bizkargi Musika eta Dantza eskolak, musika tresna eta dantzan ate irekiak era inklusiboan planteatuko ditu.

Zuek ere URDINAK zarete!



Egutegia denontzat eskuragarri

Data: 2020-ko Urtarrila

Egutegia denontzat egin genuelako, gure web orrian eskegi dugu guztiontzat eskuragarri egon dadin.

Deskargatu, inprimatu, kopiatu, konpartitu, lagunei bidali,... nahi duzuen egin dezakezue, zuena bait da, zuentzako egin bait dugu.

2020 dudarik gabe inklusioaren urtea izango da.

#mareaurdinaegutegia

[BIDEOA](#)



#mareaurdina

Hitzaldia

Data: 2020-ko Urtarrila

“Zer egin komunikazio/hizkuntza arazoak daudenean?” izenburuarekin antolatu dugu datorren asteazkena 29 Azkoitiko Elkarguneko Oteiza Aretoa lera Zuazolazigorragak emango duen hitzaldia.

Guraso, familia, zein komunikazio/hizkuntza arazoak dituzten pertsonekin lanean aritzen diren profesional desberdinentzat zuzendua. Animatu zaitetz!

HITZALDIA

MAREA URDINA-ren eskutik

- Eguna: Urtarrilak 29 **ASTEAZKENA**
- Ordua: 19:30ean
- Lekua: **ELKARGUNEA** Oteiza Aretoa (**AZKOITIA**)
- Gaia: "ZER EGIN KOMUNIKAZIO HIZKUNTZA ARAZOAK DAUDENEAN"

ZER LANDUKO DA?

- Haur zein helduek izan ditzaketan hizkuntza eta hizkera arazoan azterketa.
- Komunikazioaren garrantzia.
- Komunikazio sistema desberdinak.

Hizlaria: lera Zuazolazigorraga

- Pedagogian lizentziatua
- Logopedian Goi Mailako ikasketak
- Ikerketa sozio hezitzaileko masterra
- Komunikazio alternatibo eta aumentatiboetan aditua





Marea Urdina egunaren aurkezpena


Data: 2020-ko Otsaila

Badira jada 2 urte Marea Urdina sentsibilizazio zeharkaldia egin zela eta ordutik jende asko hurbildu izan da gugana berriro horrelako zerbait antolatu behar genuela esanez.

Ados geunden esaten zigutenarekin baina garbi geneukan formatuak beste bat izan behar zuela, Marea Urdina Elkarteak beste dimentsio bat hartu du, helburu zabalagoekin, baina egia dena gure helburu nagusienetako bat berdina jarraitzen duela izaten: aniztasun funtzionala duten pertsonetikiko gizartearen sentsibilizazioa.

Horretarako Marea Urdina Eguna sortzea otu zitzaigun, sentsibilizaziorako egun bat, inklusioaren festa izango den ekitaldiz beteriko egun oso bat, goizetik gauera herriko agente eragile guztiek parte hartuko duten jai bat, herritik eta herriarentzat.

Gustu handiz Maiatzak 23-an Azepeitian ospatuko den Marea Urdina Egunerara gonbidatzen zaituztegu denok, bazatoz?





#mareaurdina

Gaur Otsailak 18 Asperger Sindromearen Nazioarteko Eguna, badakizu zer den?

#asperger

Irudia: Oihana Egaña



Ihauterietan puzgarri inklusiboak

Data: 2020-ko Otsaila

Inauterietan ere Izarraitz pelotalekuko puzgarriak INKLUSIBOAK izango dira.

1. Alde batetik aniztasun funtzionala dutenek ez dute ilararik egin beharrik izango parkea irekita egongo den egunean (Otsailak 22 Larunbata (11:00-14:00 eta 16:00-20:00)).

2. Aniztasun funtzionala dutenentzako baina konkretuki jendetza, zarata eta musikarekin arazoak izan ohi dituztenentzako ordutegi berezi bat jarri da:

- Otsailak 22 Larunbata 10:00-tik 11:00-ra eta 15:00-tik 16:00-ra





#mareaurdina

Animatu eta etorri gozatzera!

Ihauteriak ere guztiontzat nahi ditugulako, zorionak Azpeitiko Udalari! Zuek ere Marea Urdina zarete.

Data: 2020-ko Otsaila

Gaur KOKLEA INPLANTEAren nazioarteko eguna da

Gailu elektronikoa da, gortasuna dutenei laguntzeko diseinatutakoa. Soinu informazioa seinale elektriko bihurtzen du eta zuzenean bidaltzen dio entzumen-nerbioari, garunak soinu bezala har dezan



Data: 2020-ko Otsaila

Gaur Otsailak 28 Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna da, Marea Urdinatik gure babesa eman nahi diegu egoera latz hau pairatzen duten pertsoneri, batzuk gure elkarteko kideak.

Informazio gehiago:

<https://enfermedades-raras.org/>



Otsailak 28
Gaixotasun Arraroen
Nazioarteko Eguna






#mareaurdina

Data: 2020-ko Martxoa

Gaur Martxoak 3 Entzumenaren Nazioarteko Eguna da. Badakizu 2018-an 466 miloi pertsona zeudela ez gaitasuna sortzerainoko entzumen galera izan zutenak eta ez bada neurririk hartzen 2030-rako 630 aurrikusten dituela OMS-k?



Logopedaren eginkizun nagusia hizkuntza barruan dauden eremuetan zailtasunak dituzten pertsona guztien komunikazioa ezarri, lagundu, erraztu eta indartzea da.

Aniztasun funtzionala duten eta ez duten askok erabiltzen dugun zerbitzua da logopedia, gaur beraien eguna da.

Milaesker gure hurrekin egiten duzuen lan bikainarengatik





#mareaurdina

Hona hemen Coronavirus-aren prebentziorako kontutan izan behar diren neurriak ulermen arazoak dituen kolektiboentzat (piktogramekin).

Milaesker Susana L. Arzac

Coronavirusa gaixotasun kutsakorra da.

Txinan sortu eta mundu osoan zehar zabaltzen da.

Gaixotasun hau dugunean,

Eztula egiten dugu, sukarra dugu.

Nekatuta gaude, arnasa hartzea kostatzen zaigu.

Gaixotasunaren transmisioa saihesteko, honako hau egin behar da:

Eskuak maiz garbitzea,

Eztul egitea edo doministiku egitea ukondoan,

Ez ukitu begiak, sudurra, ahoa...

Auteur des pictogrammes: Sergio Falco Provençor: ARASAAC (<http://www.arasaac.org>)
Licence: CC BY-NC-SA / Projekte: Gouvernement d'Anglet / Traducció al euskera: Susana L. Arzac

Harro esan dezakegu Azkoitia Euskal Herriko lehenengo herria dela oinezkoen pasabideetan piktogramak erabiltzen, horrela bide segurtasuneko arauak ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonen segurtasuna bermatuz.

Zorionak benetan Azkoitiko Udalari ekimen honengaitik, dudarik gabe zuek ere URDINAK zarete!





#mareaurdina

[Erlo Telebista](#)

[Euskadi Irratia](#)

Gaur Down Sindromea duten pertsonen nazioarteko eguna da eta oso era berezian bizi behar dugu aurten egun hau. Horregaitik hona hemen gure proposamena

Hemen duzue Down Sindromearen Nazioarteko Egunean bidali zizkiguten argazki guztiekin eginiko bideoa, bukaeran sorpresa eta guzti.

Zoragarriak zarete!

[BIDEOA](#)



APIRILAK 2: AUTISMOAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Datorren Apirilaren 2a Autismoaren Nazioarteko Eguna da eta aurten era oso berezian ospatu beharrean gaude egun hau, denok etxean egongo bait gara. Arazo bat bezala ikusi daitekeena guk abantaila bezala planteatu nahi dugu, etxetik denok famili giroan sentsibilizazio jarduera bat egiteko aukera paregabe bezala. Beraz, [Marea Urdinatik #ETXETIKURDINDUMUNDUA](#) egitasmoa proposatzen dizuegu, egun horretako kolorea URDINA izatea etxe/herri/mundu guztian.

*Argazki/bideo bat atera eta bidali iezaiguzu gure sare sozialetatik Apirilak 3-a baina lehenago.

[Proposamen BIDEOA](#)

[Argazkien Laburpen Bideoa](#)

[Bideoen Laburpen Bideoa](#)



#mareaurdina

Covid-19aren ondorioz daukagun larrialdi egoeratik eta etorkizunerako dagoen ziurgabetasunagaitik, Maiatzak 23rako aurreikusita genuen Marea Urdinaren Eguna bertan behera uztea erabaki dugu.

Ala ere, egoerak hobera egin bezain pronto *Marea Urdina* Eguna berri bat gogotsu antolatzen hasiko gara, seguru antolatuta geneukana baina askoz handiagoa izango dela. Denok Marea Urdina baikara!Eutsi!





#mareaurdina

Data: 2020-ko Maiatza

"Zertan lagundu dezaket?" galderari "Zer dakizu egiten?" galderarekin erantzun ohi diogu beti Marea Urdinatik. Deustuko Unibertsitateko Komunikazioko Gradu ikasleek (eta irakasleak) galdera hau erantzuteko konpromisoa hartu zuten, beraiek dakitenean lagunduz, horrela publizitateko ikasgaiko proiektua Marea Urdinaren inguruan egitea erabaki zuten.

Proiektua Marea Urdinaren inguruan ikasleak taldeka sentsibilizazio ekitaldi bat antolatzea eta aurrera eramatea izango zen (10 ekitaldi baino gehiago izango ziren, herri eta formatu ezberdinetan).

Tamalez Covid-19agatik izaten ari garen itxialdiaren ondorioz, bertan behera gelditu ziren proiektu hauek hasieran pentsatuta zeuden formatuan egiteko asmoak.

Baina Deustuko ikasle hauek ez zuten amore eman eta formatu berri batetan aurrera jarraitzeko konpromisoa hartu zuten.

Zer ari ote dira prestatzen? Laster jakingo dugu. Gora zuek! Zuek ere Marea Urdina zarete





#mareaurdina

Maiatzak 13a Ospitaleratutako Haurren eguna dugu. Marea Urdinako zenbait kidek eta noski, gizartean aurki ditzakegun zenbait aniztasun funtzionalekin bizi diren haur batzuk, badute ospitaletan egonaldiak egiteko joera eta beharra. Egoera berezi honetan, sekula baina ozenago, zuekin bat egiten dugu, bai familia eta baita zaintzaileekin ere.



Data: 2020-ko Ekaina

Gustu handiz aurkezten dizuegu Deustuko Komunikazio Graduko ikasleek martxan jarri zuten #marearekinbat proiektuaren emaitza. Komunikazio esparruan lana egingo duten etorkizuneko langileak horren kontzientziatuak ikusteak benetan aurrera jarraitzeko indarra ematen digute.

Zoragarriak zarete! Milesker, nola ez zuek ere Marea Urdina zarete

[Bideoa](#)

MUSUKO URDINAK

“Eta zuk zer egin dezakezu?” galdetu izan diogu iraganean gizarteari baina oraingoan geuk geure buruari galdetu behar izan diogu. Pandemia honek ondorio izugarriak izan ditu gizartean eta guk Marea Urdinatik gure aletxo jarri nahi izan dugu.

Helburu horrekin Marea Urdinaren MUSUKO SOLIDARIOAK atera ditugu, urdinak Marea Urdina garelako eta solidarioak lortzen diren irabazien %100a saltokiak jasoko dituelako dohaintzan.



#mareaurdina



#mareaurdina

Data: 2020-ko Uztaila

Uztailak 16 Osteguna 19:30ean Azkoitiko Elkargunean egingo den Marea Urdina Elkartearen asanblada irekira gonbidatzen zaituztegu.

Joateko interesa duen inor ezagutzen baduzue, luzatu berai ere gonbidapena, bilera irekia izango bait da.

Denak izango dira ongietorriak, denok Marea Urdina baikara.

Ordurarte!



MAREA URDINA-ren
URTEKO ASANBLADA
IREKIA

- Eguna: Uztailak 16 OSTEGUNA
- Ordua: 19:30ean
- Lekua: ELKARGUNEA Herriko Plaza (Azkoitia)
- Gaiak: - 2019 Urtean egindako ekintzak
- 2019ko Balantze ekonomikoa
- Etorzimeneko errotrak
- Norberak dakarrena

#mareaurdina elkargunea #mareaurdina egitea

Aurtengo udan gutako asko Covid-19a dela eta ez gara urrutira joango, baina zorionez gertu ditugun toki zoragarriak ezagutzeko aukera izango dugu. Zergatik ez diguzue txoko polit horietatik argazki bat bidaltzen gure logoarekin? Aurtengo udan #mareaurdinagipuzkoan egitasmoa martxan jartzen dugu. Animatu eta bidali iezaguzu argazki polit bat!!

Urdindu dezagun udara!

*Noski, kanpora zoaztenak ere zuen argazkiak partekatuzera gonbidatzen zaituztegu.

#MAREAUARDINAGIPUZKOAN
eta munduan

Aurten ez zoaz kanpora eta gertu ditugun leku zoragarrietan ibili behar duzu?

Animatu eta atera ezazu argazki bat Marea Urdinako produkturen batekin (musukoa adibidez) eta bidali iezaguzu.

Animatu!

*Urrutirago bazoaz bidali iezaguzu ere argazkia

mareaurdina.org/mareaurdinamunduan



#mareaurdina



Data: 2020-ko Iraila

Datorren Irailak 7-an Duchenne-ren Kontzientziario Nazioarteko Eguna izango da.

Marea Urdinako kide den Iren Azpeitiarrak nahasmendu genetiko hau du eta horregaitik egun hauek DUCHENNE-renak izango dira guretzako.

Astean zehar "arraro" bezala katalogatuta dagoen gaixotasun honen berri emango dugu eta nola ez, kontzientziario ekimen desberdinak emango ditugu aurrera.



#mareaurdina

GR11 Urdina-ren AURKEZPEN PRENTSAURREKOA

- Eguna: Irailak 11 OSTIRALA
- Ordua: 19:00tan
- Lekua: Herriko Plaza Aretoan (ELKARGUNA) AZKOITIAN
- Gaia: GR11 Urdinaren AURKEZPENA
- Hizlaria: Imanol Aleson & Marea Urdina

#GR11urdina



Data: 2020-ko Urria

Garun Paralisisa bizi dutenek, sintomatologia ezberdin ugari izan ditzakete edo ez. Hau da, gihar tonua aldatua izan edo ez, kognitiboki urritasuna izan edo ez, hitz egiteko gaitasun eza izan edo ez, kanpoko laguntzen beharra izan edo ez...

DÍA MUNDIAL DE LA PARÁLISIS CEREBRAL

La parálisis cerebral (PC) es un trastorno neurológico que afecta permanentemente el movimiento de un sujeto, desde la debilidad en una extremidad, hasta la carencia total del cuerpo o movimiento voluntario.

La Parálisis Cerebral puede afectar distintas partes del cuerpo

DEFICITS ASOCIADOS:

- 1 de cada 3 no puede andar.
- 1 de cada 4 no puede hablar.
- 1 de cada 5 tiene problemas de babeo.
- 1 de 4 tiene desórdenes de conducta.
- 1 de cada 10 tienen déficits visuales severos.
- 1 de cada 4 presenta incontinencia urinaria.
- 1 de cada 5 presenta insomnio.
- 1 de cada 2 tiene déficits intelectuales.

En el mundo hay 17 millones de personas con parálisis cerebral.

809-686-7290 • www.cecip.com.do



#mareaurdina

Bizitza guztian zehar izango duzun ezaugarria izango den arren, sintomatologia alda daiteke denbora pasa ahala, denborak aurrera egitean, guztion egoera alda daitekeen bezala.

Gaur Garun Paralisiaren eguna dugu eta buelta eman nahi diogu bizi garen momentuari, dena hankaz gora jarri eta egoera hau pairatzen dutenei ikusgarritasuna eman. Eman ezazu buelta Marea Urdinarek

Data: 2020-ko Azaroa

Aurtengo ikasturtea berezi xamarra izango da, Koroa-Birusa dela eta neurri bereziak hartu beharko dira hainbat lekutan, neurri horien artean musukoa erabili behar izango dugu. Hau dela eta Marea Urdinatik opari berezi bat egin nahi diogu Azkoitiko Ludotekako ume guztiei kurtso hasiera xamurragoa izan dadin, MUSUKO MAGIKOA oparitzen diegu. Bai, ondo irakurri duzue MUSUKO MAGIKOA da, musuko hau janzten duenak SUPER-BOTEREAK izango ditu ikasturte osoan. Zeintzuk diren superbote horiek? Hemen dituzue:

- ✓ Denak berdin eta aldi berean desberdin ikusteko SUPERBOTEREA
- ✓ Behar duenari laguntzeko SUPERBOTEREA
- ✓ Inor ez baztertu edo atzean uzteko SUPERBOTEREA
- ✓ Bakarrik dagoenarengana gerturatzeko SUPERBOTEREA
- ✓ Denak errespetuz tratatzeko SUPERBOTEREA

Eta nola ez, hau guztia:

- ✓ Arduraz ta prebentzioz egunerokotasuna eraikiz
- ✓ Bakoitzak osasun mental ta fisikoa zainduz ingurunea ta ditugun beharrak asetuz.

Musukoarekin ta jolastuz,

zatoz mundua deskubritzera!





#mareaurdina

*Marea Urdina*ko Filma beste herrietako zinemetan botatzeko asmoa geneukan, tamalez, Koroa-birusak ez digu utzi hori egiten.

Beraz, denon eskura egon daitezen publiko egingo ditugu. Noiz? Egun berezi batetan: Abenduak 3 Ez-gaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunean.

Biba zuek!

[Marea Urdina Filma](#)

"Ezagutu Nazazu" erakusketa beste herrietan exponitzeko asmoa geneukan 2020 urte osoan, tamalez, Koroa-birusak ez digu utzi hori egiten.

Beraz, erakusketa hau denon eskura egon dadin publiko egingo dugu. Noiz? Egun berezi batetan: Abenduak 3 Ez-gaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunean.

[Ezagutu Nazazu erakusketa](#)

Data: 2020-ko Abendua

Gabon berezi hauek animatzeko, aurten Marea Urdinatik otarra zoragarri baten zozka egingo dugu. Baldintzak ondorengo bideoan dituzue eta gabonurdina.org web orrian. Aurtengo gabonak URDINAK izango direlako.

[#gabonurdina](#)

[Bideoa](#)



Gaur Paralisi Brakialaren (PBO) eguna da, gure ametsa Nora eta beste guztiak lainoak ukitu ahal izatea denez, esan dezagun denok ozenki LAINOAK UKITU ARTE!. Gure ametsa denok Marea Urdina izatea baita.



Igande honetan arratsaldeko 19:00tan [Portale Kultur Elkarteak](#) antolatuta, Zestoako Alondero Kultur Aretoan [Marea Urdinako](#) filmaren emanaldia izango da.

Proiektzioaren ondoren gurekin solasaldia egiteko aukera izango duzue, animatu eta zatoz Zestoara! Gu ere han izango gara!

MAREA URDINA FILMA
Abenduak 20, igandea, 19:00etan
Alondero kultur aretoan

Ondoren taldekideekin solasaldia




ANTOLATZAILA:



SARRERA DOAN

Izen-ematea Portale kulturgunean edo
portalekulturelkaratea@gmail.com helbidean





#mareaurdina

Azkoitiko Caixak, Caixa Fundazioaren Obra Sozialaren bitartez *Marea Urdinari* diru-laguntza eman berri digu.

Diru-laguntza honi esker Marea Urdinaren 2021eko inklusio proiektuak aurrera eramateko gai izango gara neurri handi batean. Bihotzez mila esker.

Gora zuek! Azkoitiko Caixa
ere URDIN!

